# Gas Pasaia

Trintxerpeko Alkate Ordetza z/g. 20110 Pasaia
Tel.: 943 395 786



## ESAIGUZU NOLA ORDAINDU NAHIKO ZENUKEEN ZURE ETXEAN GAS NATURALAREN INSTALATZEA

Gas Pasaiak, abantailak eskaini nahi dizkizu gas naturala modurik errazenean, erosoenean eta ekonomikoenean goza dezazun.

*Jarraitu honako urrats hauek!*

1. Eskatu zure instalazioaren aurrekontua enpresa instalatzaile bati.
2. Zoaz Kutxa, Banco Guipuzcoano edo Euskadiko Kutxako bulegoren batera aukeratutako aurrekontuarekin.
3. Eskatu kreditua oso interes bereziarekin: %5 lehenengo urtean, eta 8 urtetan itzultzeko.
4. Zure enpresa instalatzailea Gas Pasaian laguntzaileetako bat baldin bada, lehenengo urteko interesen %100a aurreztuko duzu. Eta ez baldin bada, lehenengo urteko interesen %50 ordainduko dizugu.

***Instalatu Gas Naturala, etenik gabe hornitzen den energia, erosoa, garbia eta ekonomikoa !***

# bronka

*Pasaiako herri-aldiz...*




## Agur eta ohore, Monsinore Laboa


2002ko azaroa

32 zenb.



Pack Gaztea 95€

eta Pack bakoitzarekin buruko hau opari



Pack-a: lente kaxa bi + likidoak



BERGARA Tel. 943 76 15 75
ARRASATE Tel. 943 79 29 95
ORDIZIA Tel. 943 88 99 88
EIBAR Tel. 943 20 05 22
ERRENTERIA Tel. 943 51 78 11

SUN TROPIK

MULTIOPTICAS esklusiban

# branka

**Pasaiako herri aldizkaria**

2002KO AZAROA/ 32 ZENB.

Argitartzaileak:
Arnasa Euskara Elkartea
Abaraska Euskara Elkartea
Tel: 943 341 045
Lege Gordailua:SS-42/2000
ISSN:1576-0138
Inprimategia:
Lankorpe

Tirada:
2500
Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Koordinatzaileak**
Olatz Mitxelena eta Urko Etxebeste
**Hizkuntza arduraduna**
Joxe Luix Agirretxe
**Diseinua**
Txema Garzia Urbina
**Maketazioa**
Urko Etxebeste
**Publizitatea**
Eñaut Gantxegi TEL.: 657 796 073
**Azala**
Lander Garro
**Kolaboratzaileak**
Jon Vicente, Luis Mari Laboa, Olatz Sistiaga, Imanol Carballo, Jon Goikoetxea, Izaskun Aldezabal, Markos Sistiaga, Idoia Vicente, Patxi Porta, Aintzane Taberna, Erkuden Muguruza, Edurne Urkiola, David Zapirain, Maripi Etxarri, Bernar Arratibel, Asier Vilas, Xabi Etxaniz, Patxi Berdote, Unai Martin, Joseba Antxustegietxarte, Xabier Garagarza, Juanra Cano, Ander Poza, Iñaki Berrio.


**Branka hilabetero zure postontzian debalde jaso nahi baduzu, ez duzu behekaldean duzun kupoia besterik bete behar eta helbide hauetara helarazi:**

## harpidetza
txartela

Izen deiturak.......................................................................
Helbidea.......................................................Herria...............................
KP.................. telf...................... e-posta...............................................

postaz
**Branka Pasaiako herri-aldizkaria**
**Eskalantegi 38, behea. 20110 Pasaia**
telefonoz
**943 34 10 45 telefonora deituaz**
e-postaz
**branka@euskalnet.net helbidean**




**Aldizkari honek erakunde hauen laguntza jaso du:**

Pasaiako Udala

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentua



ELOSEGI
OBREN ONDORIOZ:
ESKALANTEGI 48-AN
GAUDE, PROBISIONALKI.
BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZIA
MAIATZAREN LEHENA 3. 20110 PASAI ANTXO. GIPUZKOA
943 520888.

Loradenda
MAIALEN
Ezkontzetarako lore-sortak
Lore-erdikaldeak
Lore-koroak
Etxez-etxeko zerbitzua
Nafarroa etorb. 16
tel.: 943 52 84 91 20110 PASAI ANTXO

IPARRA taberna
I M E H
Tel.: 943 34 01 64 PASAI ANTXO


# laburrean


**>4. DENETATIK**

**>5. EZ ZAITEZ MOZTU**

**>6-13. BARRUTIZ-BARRUTI**

**>14. AGENDA**

**>15. KRITIKAK**

**>16. ELKARRIZKETA**
Denis Itxaso

**>21. ERREPORTAJEA**
Agur Laboa Monsinoreari

**>24. KALE INKESTA**
Zer uste duzu aldatu dela aurreko denboraldietako Reala eta aurtengoaren artean?

**>26. HORRELAKOAK GINEN, IRAGANARI BEGIRADA**









Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
zuri esker
gracias a ti

t

## **telefono** *interesgarriak*

**UDAL ZERBITZUAK**
**Gizarte zerbitzuak:**
943391187
**Kultura, euskara eta gazteria:**
943400108
**Idazkaritza:**
943344140
**Dirubilketa:**
943522150/4
**Kontuhartzailetza:**
943344157
**Diruzaintza:**
943344153
**Hirigintza:**
943344224
**Udaltzaingoa:**
943400000
**Obrak eta zerbitzuak:**
943393693
**Antxoko Udal Liburutegia:**
943515737
**Trintxerpeko Udal Liburutegia:**
943401053
**San Pedroko Udal Liburutegia:**
943399348
**Pasaia Musikal Udal Fundazioa:**
943396055

**LARRIALDIAK**
**DYA:**
943521557
**Gurutze Gorria:**
943511605

**BAILARAKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEAK**
**Lau haizetera:**
943341048
**Orratx!**
943344626
**Branka:**
943341045
**Oarso Telebista:**
943493818/19
**Oiartzun Irratia:**
943493711

@

## ***interneteko*** *helbideak*

**PASAIA**
**Branka herri-aldizkaria:**
Branka @euskalnet.net
**Alkartasuna Euskal Dantza Taldea:**
Alkartasuna_edt.pasaia@euskalherria.znn.com
www.gipuzkoa.net/pasaia/
www.paisvasco.com/pasaia/

**EUSKARA**
**Euskaltzaindia:**
www.euskaltzaindia.net
**Elhuyar:**
www.elhuyar.com
**UZEI:**
www.uzei.com
**IVAP/HAEE:**
www.ivap.com
**UPV/EHU**
www.ehu.es
**Udako EuskalUnibertsitatea**
www.ueu.org
**Euskal Herrian Euskaraz**
http://www.geocities.com/capitol-Hill/7012/
**Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkartea:**
www.eizie.org

**KOMUNIKABIDEAK**
**Argia:**
www.argia.com
**Euskaldunon Egunkaria:**
www.egunkaria.com
**EITB:**
www.eitb.com

**BILATZAILEAK**
www.jalgi.com
www.aurki.com
www.kaixo.com

**INSTITUZIOAK**
**Eusko Jaurlaritza**
http://euskadi.net
www.ej-gv.es

## *Goardiako* ***farmaziak***

**Abenduaren 1n:** Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545
**Abenduaren 7an:** Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781
**Abenduaren 13an:** MªLourdes Martinez Lagos. San Juan kalea 22. Donibane. Tel.: 943514645
**Abenduaren 16an:** MªTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349
**Abenduaren18an:** Ana Isabel Sancho. Blas de Lezo 11. Pasai Antxo. Tel.: 943510545
**Abenduaren 26an:** Ignacio Ormazabal. Eskalantegi 32. Pasai Antxo. Telefonoa: 943 510781
**Abenduaren 28an:** MªTeresa Vega Gure Zumardia 27. Pasai Antxo. Tel.: 943 512349
**Abenduaren 29an:** MªLourdes Martinez Lagos. San Juan kalea 22. Donibane. Tel.: 943514645

## ***besteak***

**JAIOTZAK, HERIOTZAK ETA EZKONTZAK**

Azaroan, 7 pasaitar jaio dira 2 pertsona hil dira, eta 8 ezkontza ospatu dira.



*ez zaitez* ***moztu***

# Hizkuntza eskubideen urraketa

Ondorengo lerroekin batera zenbait euskaldunen hizkuntza eskubideen urraketen berri gerturatu nahi dizuegu. Dakizuenez, Espainiako eta Frantziako espetxetan hainbat eta hainbat, 530etik gora senide dauzkagu sakabanatuak, hauetako gehienak Euskal Herririk milaka kilometrotara urrundurik. Egunak joan, egunak etorri euskaldun hauen bizibaldintzak gaiztotzen ari dira, inoiz pairatu ez dugun baino abiadura bizkorragoan. Halaber, orokorra den errealitatearen egiaztatze honetan mingarriki murriztuak izan diren hizkuntz eskubideak ere aipagai dauzkagu eskutitz xume honetan.

Familiarroi gure senide presoekin irekitako sakabanaketa politikak adieraz dezakeen guztia gure azalean ere biziarazten digute, hau da, preso dituzten gure senitartekoen eskubideen aurka hartzen dituzten neurri guztiek, geuri, familiarroi ere eragin egiten digute... adibiderik bortitzenak, egunez egun, euskal gizarteraino iristarazten saiatzen gara eta, une zehatz honetan, prozedura historikoa izan den bezala, gure hizkuntzarekin ere lotura estua duten eraso hauek mintzagai bihurtu nahi ditugu, eta, edonola ere, espetxe ezberdinetan euskararen erabilpenerako pairatzen dituzten zailtasun erraldoiak ere bai. Horren erakuslea da azken egun hauetan Madrilgo Entzutegitik eskuratu dugun autoa, bertan euskal preso politikoek euskaraz komunikatzeko duten eskubidea zapaltzen da, euskal preso politikoen ohiko bisitaldietan eta telefono deietan euskaraz ezin direla mintzatu erabakitzen baita, besteak beste. Adibide latz honen bidez idatziz jaso dugu ohikoa izan den prozedura baten islada.

Honekin guztiarekin oso kezkaturik gauzkate, honi guztiari erantzun beharrean gaude eta, guztion artean, elkarlanean, aurre egin beharko genioke. Horregatik ere zuen hitza eta erabakiaren premia daukagu.

Horregatik, eskutitz honen bidez ere Euskara Elkarte, Euskaltegi, Ikastola, euskarazko komunikabide eta orokorrean euskalgintzan lanean zabiltzatenoi dei egiten dizuegu Madrilgo Auzitegiak hartu duen erabaki honen aurkako lanean hasteko.

Besterik gabe, mila esker.

**Etxerat Elkartea**

**BRANKA ALDIZKARIKO ERREDAKZIOAREN OHARRA**

**Begi aurrean duzun hau zure hitzak jasotzeko Brankak eskaintzen dizun lekua da. Aurrerantzean ere zuen guztien gutunak jasotzeko irrikan gaude; kezkak, txaloak, kritikak, iradokizunak... den denak izango du lekua gure postontzi pottolo honetan. Beraz, anima zaitezte, eta gehiago pentsatu gabe igorri zuen eskutitzak kontrazalean ageri zaizuen helbidera. Laister arte.**

Branka aldizkariak ez du bere gain hartzen atal honetan adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# donibane

## *Itsas Mendi K.K.E.ko Lehenengo Argazki Lehiaketa*

***Itsas Mendiko Mendi Sekzioak Lehenengo Argazki Lehiaketa antolatu berri du. Lehiaketa honen gaia "Mendia eta Mendizaletasuna" izan da. 48 argazki eta 28 diapositiba jaso dituzte antolatzaileak. Partaide guztien artean Hurrengoak izan dira irabazleak:***



Argazkia: Jon Vicente

PAPEREAN
1. – Errenteriako Jose Ramón Gago Lópezen "Lainoa": 220 Euro eta y Trofeoa
2. – P.Donibaneko Miguel Lujambioren "Natura zuritzen": 150 Euro eta Trofeoa

DIAPOSITIBAN
1. – Zaldibiako Igor Etxabe Irastorzaren " Aita eneriorantz II ": 220 Euros eta Trofeoa.
2. – Errenteriako Miguel Angel Ceberioren "Bosque encantado": 150 Euro eta Trofeoa.




PASAIAKO ONENA
Trintxerpeko Jose Vicente Gomara Ruedaren "Llegando" diapositibarentzat: 75 Euro eta Trofeoa.

MENDIZALETASUNARI SARI BEREZIA
SHERPA Mendiko Tresnak dendak eskainia. Trintxerpeko Marisa Prego Pegoren "Merece la pena" diapositibarentzat: Motxila eta Trofeoa.

Sarien banaketa Erakusketaren inaugurazioarekin batera Victor Hugoren Etxean egin zen giro onean eta jende ugarirekin.

Antolatzaileek egindako balorazioa ona izan da eta hurrengo urtean errepikatzeko asmoa agertu dute.

## Mendien ametsen lekuko



Felipe Uriarte mendizale Sanjuandarrak igotako mendiak eta bere bizitzaren pasarte garrantzitsuenak jasotzen dituen erakustaldia ikusgai izango da Victor Hugo etxean abenduaren 20tik 29ra bitartean.

Erakustaldiak mendizalearen hastapenak gogora ekarri eta azken urte hauetan lortutako azken gailurren inguruko datuak eta irudiak izango ditu erakusgai. Besteak beste, 1969. urtean lehen aldiz igotako Cervino mendia, 1974n Tximist espedizioaren partaide zela Angel Vallejo lagunarekin igotako Everesteko 8530 metroko gailurra edo eta 1998. urtean igotako Chinako Muztagh Ata 7000 metroko mendiaren igoeraren nondik norakoak jasoko ditu erakustaldiak. Argazkiz osatutako erakustaldiaz gainera, Uriarte berak "Oroitzen" izenburuko ikusentzunezko ikustaldia eskainiko du abenduaren 20an. Honen ostean Itsas Mendi Elkartean afari herrikoia izango da eta sarrerak salgai izango dira ohiko lekutan.

MENDIA ZAINETAN

Mendi gailurrak lortzeaz gainera Goi mailako Industri Injineru titulua duen Uriarte mendi gidari eta eski irakasle lanetan ibilia da; bertan ere garaipen franko lortuz.

Gidari modura Aconcagua mendia bederatzi aldiz igo du, Cerro Plata lau aldiz, bi bider Vallecitos eta beste hainbeste Cerro Cuerno mendia. Halaber Peru, Chile, Nepal eta Marokoko mendi gailur ugari zapaldu ditu azken urtetan.

Uriarte, mendiarekiko zaletasunaz gain, "Mendiak eta Herriak" Elkartearen sortzailea eta zuzendaria izan da, "Erpe Lehunak" telebista saioren aurkezle eta 1994. urtean argitaratutako "Vascos en el Everest" izenburuko liburuaren idazlea da.

Urte hauek guztietan erakutsitako mendiarekiko zaletasuna, maitasuna eta errespetua omentzeko asmotan, Euskal Mendizaleen Federazioak ohorezko saria eman dio mendizale Sanjuandarrari.

IGOTAKO MENDIAK
Cervino 1969n
Petit Dru 1972n
Everest 1974, 1980 eta 1990. urteetan
Cho Oyu 1974n
Annapurna IV. 1985n
Kangchenjunga 1979n
Makalu 1990n
Barhirathi III 1994n
Chetyrekh, Korgenevskaya eta Voroviev 1996n
Artesonraju 1997n
Muztagh Ata (China) 1998n

**Luisma Laboa**

## Zakur kakek Pasai -Donibaneko kaleak apaintzen dituzte

Joan den igandean, eguraldi ona egiten zuenez, puntasetara paseotxo bat ematea pentsatu nuen. Etxetik abiatu eta Donibane kalea hartu eta plazarantz abiatu nintzen. Plazara iritsi baino lehen, gutxienez 10 zakur kakekin topo egin nuen, eta ezagunei kasu egin beharrean lurrari begira egon behar nuela ohartu nintzen. Niri hori gertatu bazait, gure herria ezagutzera etortzen diren guztiek gutaz zer pentsatuko dute?,txerri batzuk garela.

Pasai -Donibaneko biztanleak kexatzeko lehenengoak gara, baina agian herria txukunago egon dadin gure aldetik zerbait jartzeko garaia heldu da.

Zain dezagun gure herria, merezi baitu.

98.5 F.M RADIO DONOSTI DONOSTI IRRATIA
betiko musika
98.5 F.M RADIO DONOSTI DONOSTI IRRATIA

# san pedro

## *Cicerone autogidatze sistemak bisitarien informazio iturri*

***Kofradiaren ospakizun aretoan aurkeztu zen pasa den azaroaren 15ean Oarsoaldeara hurbiltzen diren turistei zuzendutako autogidatze sistema berria. Sistema berritzaile honek, gure herriko nahiz eskualdeko gune turistikoen inguruko informazioa eskuratzeko erraztasunak eskaintzen ditu, izan ere telefono mugikorraren bidezko dei bat nahikoa izango baita aukeratutako gunearen inguruko datuak ezagutu ahal izateko.***



Promozio turistikoa eta teknologia berriak uztartzen dituen egitasmo honek bi sari jaso ditu dagoeneko: bata, 2001. urtean Kutxak egitasmo ekintzaileentzat eskainitako saria eta Merkataritza Ganbarak eskainitakoa bestea. Ciceronek, abantaila handiak dakartza turistari eskainitako zerbitzuan, besteak beste, erabiltzen erraza delako eta bisitariari askatasun handiagoz ibiltzea ahalbidetzen diolako. Izan ere, sistema honekin turistak telefono deiak nahikoak ditu bisita antolatzeko orduan beharrezkoa zaion informazioa eskuratzeko.

Era berean, eta deiaren ondoren, erabiltzaileak SMS baten bidez, eskualdeko egun horretarako agenda kulturala jasotzeko aukera izango du. Orotara, 15 informazio gune antolatu dira eskualdean zehar eta horietatik hiru San Pedron bertan. Aukeratutako lekuak honako hauek dira: Torreatze, hilerria eta eliza. Pasaiako beste interesguneak honako hauek dira: Bizkaia auzoa, Ontziola, Victor Hugo etxea, Humilladeroa, Santa Ana ermita, puntak, eta Karmengo Amaren Santutegia.
Informazio turistikoa eskuragarriagoa egiteko xedez sortutako sistema honek, Cicerone Ingurune Interaktiboak izena du. Oarsoaldean abiatu duten hau, beraien lehendabiziko esperientzia da, baina sistemaren sortzaileek beste eskualdeetara zabaltzeko asmoa iragarri dute.

Honez gain, Cicerone oso tresna interesgarria da bisitarien ohiturei buruzko informazio jasotzeko. Jasoko diren deien bidez jakin ahal izango da zeintzuk diren arreta gehien erakartzen duten baliabideak eta baita bisiten maiztasunaren berri eduki ere. Gainera, sistemak, informazioa lau hizkuntzatan jasotzeko aukera eskaintzen duenez (euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa) bisitarien jatorria ere ezagutu ahal izango da kasu askotan.

Cicerone sistema aurkezteko egindako prentsa agerraldian, Mikel Landibar, Cicerone Ingurune Interaktiboak enpresakoa, Mercedes Rodriguez, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren zuzendaria, eta Juan Carlos Alduntzin Pasaiako alkatea eta egun Oarsoaldeako Garapen Agentziaren lehendakaria izan ziren.




Denak bat egin zuten sistema honen ezarrera zoriontzeko orduan, eta bereziki azpimarratu zen egitasmoa Oarsoaldearen Garapen Agentziak, egitasmo enpresarial berritzaileentzat egiten dituen jardueren baitan sortu izana. Sistema berri honek eskualdearen balore turistikoak eta kulturalak bultzatzea du helburu, eta hein horretan, Oarsoaldearen Garapenarako interesgarria izango dela jo da.

Sistemaren inguruko aurkezpena egin ostean, agerraldira bildutakoek Torreatzen ezarritako interesguneraino hurbildu ziren bertan sistemaren erabileraren inguruko erakustaldia egiteko.

## Itsasontzien maketak erakusgai

Iragan azaroaren 11tik daude ikusgai 25 itsasontzien ereduak udal aretoan. Ikusi daitezkeen horietako batzuk Donostiako Aquariumetik ekarri dituzte, baino itsasontzi gehienek jubilatuen eskulan tailerrean sortuak dira. Han aurkitu ditugu bere ohiko jardueran Juan Palmer, Sabino Inda eta Roberto Pineiro, eta beraiek eskaini digute erakusketa honen inguruko zein itsasontzien egileen inguruko informazioa. Pasaiako modelistek erakusgai dauden 14 itsasontzien egileak dira. Jarrain egile nahiz ikusgai dauden modeloen izenak: Juan Palmerrek egindako 'Queen Mary' eta 'Maria Luisa';
Sabino Indak sortutako 'Punta Molda' eta 'Cote D'emeraude'; Roberto Piñeirok 'Calypso' eta 'Canot Sauvetage' ditu erakusketan; Jesus Aranzabalek 'Mareiro' izenekoa, Juan Carlos Fontanek 'Chipironera', 'Chinchorro' eta 'Zapatilla', eta, azkenik, Antxon Mugurutzak, 'Petratxo', 'Tarmanga' eta 'Facal'.



## Herriko aiton-amonei omenaldia

Urtero eskaintzen zaie omenaldia 80 urte betetzen dituzten herriko erretiratuei. Omenaldi eguna datorren abenduaren 8a izango da, Inmaculadaren egunean, hain zuzen. Aurtengoan 13 aiton-amona omenduko dituzte: Ana Esteban, Constancia Eguitegi, Evangelina Carrascelas, Guadalupe Moro, Josefa Ordoz, Juan González, Juana Agirre, María Ibarra, Mª natividad Arza, Marcelina Beloki, Raquel García, Rafael Carrasco, eta Teresa Ponte. Omenaldia goizeko 11:30etan hasiko da parrokian ospatuko den mezarekin. Ondoren eta autobusez, omendutakoak zein lagunak eta senitartekoak, autobusez abiatuko dira Lintzirinera, bertan baitute ospakizunerako bazkaria. Bejondaiela!

jar ezazu zure iragarkia Brankan

HAUXE BAI DELA MAUKA
POZ BETE ETA GOIA
ZERUKO BODEGOIA
SAN PEDROK HEMEN DAUKA
San Pedroko Bodegoia

MUGURUZA ARDOAK
ARDOEN ETA RIBEIROEN SALMENTA
hamaiketakoak eta meriendak
Torreatze kalea 8, behea 20110
Pasai San Pedro Tel.:943 39 49 44

# antxo

## *Antxo ekialdetik ere zabalduko da*

***Azken Brankako aleetan etengabe argitaratzen ari da Antxon aldaketa urbanistiko asko ematen ari dela. Aldaketa horietatik handienetakoa 'Marealtako' eskuinaldea berreskuratuko duen proiektu dago, lehen industrigune zena etorkizun batetan barrutirako aisialdi gunea bihurtuko baita.***

Gipuzkoan dauden industriaguneetako bat da Pasaia. Bertan dauden enpresa asko, ordea, zaharkituta geratu dira, eta aspaldi utzi zioten lan egiteari. Horietako bat zen Beissier enpresa. Hori izan zen Antxon eraiki zen lehen industrietako bat. Urte hasieran produkzio osoa Errenteria-Oreretan kokatua dagoen Txirrita-Maleo industrigunera eraman zuen, eta orduz danik hutsik egon da eraikina. Gauza bera gertatzen da inguruko eraikin askorekin ere. Horregatik, Pasaiako Udala, Gipuzkoako Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, industria horiek botatzen hasi da. Proiektu honen helburua herriaren itxura hobetu eta berritzea da.



Duela hamaika urte jarri zen martxan egitasmo hau Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputazioaren diru laguntzei esker, eta orain arte 166 hektarea berreskuratu eta 92 eraikin bota dituzte gure herrialdean. Helburu horrekin 900.000 euro baino gehiagoren diru laguntzak bideratu dituzte azken urtean.

Pasaian hiru dira oraingoz desagertuko diren industriak 'Marealtaren' ingurutik, Beissier Pintura enpresa, eztainuzko hodiak egiten zituen enpresa eta Martija Etxea. Haueri Luzuriaga, Campsa edo Laffort bezalako enpresak gehitu behar zaizkie, lehenago botatakoak.

Beissier hain zuzen ere, Urriaren 31n hasi ziren botatzen. Juan Carlos Alduntzin Pasaiako alkatearen arabera, «hilabete pare batean ibaiertzean dauden eraikin zaharrak botatzea espero dugu, eta lau edo bost urtean parke bat izango da horien tokian». Bertan izan ziren baita ere Sabin Intxaurraga Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Ingurumen sailburua, Roman Sudupe Gipuzkoako ahaldun nagusia eta Koruko Aizarna Gipuzkoako Hirigintza diputatua. Intxaurragaren arabera, «egitasmo honek gure herrien itxura hobetuko du».

Antxok, beraz, urte gutxiren buruan hain beharrezkoa duen 'birika' bat izango du hainbeste urtetan herritar eta ingurukoei lan eman zien gunean bertan.


*Muebles Altzariak* RUIZTEGUI, s.a.
MOTA GUZTIETAKO ALTZARIAK
ZURE NEURRIKO FINANTZIAKETA
Nafarroa hiribidea, 15
Tfnoak.: 943 510389-510736
Faxa: 943 510494
20110 PASAI ANTXO

PITXI TXULO
JATETXEA-TABERNA

EGUNEKO MENUAK ETA KARTA ZERBITZUA
Eskalantegi, 118
Tfno: 943 520 770
Molinao Auzoa
PASAI ANTXO

KAMIO
Taberna
1934
Gure Zumardia, 27-20110-Pasaia (Gipuzkoa)




## CD Pasajes

Denboraldi borobila burutzen ari da CD Pasajes aurtengoan. Luis Fernando Dadieren gidaritzapean dauden mutilek bigarren postua lortu zuten azkeneko jardunaldian Mundarrori 2-1 irabazi ondoren, azken minututan sartutako penalti bitartezko gol bati esker. Preferente mailan dagoen talde antxotarrak aldaketa ugari izan du aurtengo udan, ia talde erdia berritu duelarik. Ondorioz, emaitza onak lortzen ari da CD Pasajes, eta hirugarren mailara igotzeko borroka egingo du. Aupa Pasajes!

## Gaztain-erre jaia

Urtero bezala Pasai Antxoko Gazte asanbladak gaztain-erre jaia antolatu zuen pasa den azaroaren 23an. Jaia, Gure Zumardian ospatu zen giro ezin hobean, eta ez ziren falta izan normala denez gaztainak, zipli-zapla erre zirenak antxori usain berezia emanez ordu batzuz bederen.

## Elizako aurrekaldearen berrikuntza lanak

Antxoko San Fermin parrokiako lanak duela bi urte hasi ziren, Zumardi eta Frontoi aldera ematen duten zatiak margotu eta txukundu zirelarik. Honekin batera, kanpai berriak jarri ziren, baita teilatua konpondu ere. Oraingoan, elizaren aurrekaldeari dagokio txukun-txukun jartzea.

## Iheslarien aldeko martxa



Azaroaren 6an 'Askatasunaren Urratsa' izeneko iheslarien aldeko martxa pasa zen Antxotik. Martxa honen xedea, antolatzaileek esandakoaren arabera, Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea aldarrikatzea izan zen. Honekin batera, 2000 iheslari baino gehiago daudela azpimarratu ziguten martxalariek. Gure Zumardian burututako ekitaldi txiki batetan Aitor Oteiza iheslari antxotarrari tarte berezia eskaini zitzaion.

## Santo Tomas

Aurtengo Santo Tomas feria Abenduaren 15ean ospatuko da gure barrutian. Aurtengoan, Txirrita-AEK euskaltegikoek Antxoko eragile ezberdinen laguntza izango dute jai honen antolaketan, Gazte Asanblada eta Alkartasuna Euskal Dantza Taldea besteak-beste, baita laguntzeko prest agertu diren zenbait antxotar ere. Urtero bezala artisauak, txistorra, edari goxoak eta baserri animalien erakusketa izango ditugu Gure Zumardian, ohikoa den jaigiroa aurtengoan ere errepikatzeko asmoz.




URTXINTXA BULL
URTXINTXA BULL, S.A.
Gipuzkoako English Mark Darts operadoreak
Gure Zumardia 13, behea
Pasai Antxo. Tel. : 518527


Bar Goiherri C/ Eskalantegi, 36 - Tel. 943 51 00 19
PASAI ANTXO

MIMOS TABERNA
tel.:
943 51 85 27
Pasai Antxo

# trintxerpe

## Aparkalekuen auziak hika-mika sortu du bizilagun eta udalaren artean

**Ez dago giro Trintxerpeko goialdean bizi diren hainbat bizilagunen artean. Izan ere, bertako biztanle ugarik ez du begi onez ikusi normalean gaizki aparkatu ohi diren autoei isuna jartzeko udalak hartutako erabakia.**



Orain arte, eta Ulia etorbidearen inguruko biztanle dentsitatea handia dela kontutan hartuz, automobilak espaloi gainean aparkatu ohi ziren, berez oinezkoentzat diren espazioak okupatuz. Orain arte, eta bestelako konponbideak bilatzen ziren bitartean, udalak egoera hau baimendu egin omen du nolabait. Aldiz, abuztu eta irailaz geroztik, eta inguruan eraiki diren garajeen lanak amaituz geroztik, udalak ohar batzuen bidez ohartarazi zuen zonalde horietan aparkatzearen debekuaz eta gaizki aparkatutako autoei isunak jartzeari ekin dio. Ulia Etorbidea, Bordaenea, Andonaegi eta Azkuene kaleko hainbat bizilagun oso haserre ageri dira hartutako erabaki honekin eta elkartu egin dira udalari irtenbideak bila ditzala eskatzeko. Beraien esanetan, udalak ematen duen alternatiba bakarra garajea erostea da, eta beraiek, noski, honen aurka ageri dira bizilagun guztiek ez dutelako garaje bat erosteko aukerarik. Isabel Pejenaute Ulia etorbideko bizilaguna da eta berak azaldu dizkigu hika-mika honen nondik norakoa. Isabelen esanetan "arazoa hasi zen errepide berria zabaltzearekin".

Zonaldean egin dituzten lanak ere ez dituzte begi onez ikusten. "Suhiltzaileek ere ezin dute pasa, ez eta gutxitu fisikoek ere gurpildun aulkiarekin. Hobetu beharrean okerrera egin du" diosku Isabelek. Horrez gain bizilagunek kexu ageri dira udalak beraien kexen aurrean azaldu duen jarrerarekin. "Idatzi bat egin genuen eta udalari igorri genion. Oraindik ere ez digute erantzun. Erantzuna Trintxerpeko Batasunak eman dugu soilik. Guk udalari azaltzen badiogu kexa bat, udalak erantzun dezala eta ez alderdi politiko batek" dio Isabelek.

Udalak auzi honen inguruko ohar bat kaleratu zuen prentsan. Ohar horretan esaten denaren arabera, trintxerpeko bizilagun guztiek pairatzen dute aparkatzeko lekuen gabezia zein espazio libreena, eta hori dela eta udalak hainbat erabaki hartu ditu oinezkoentzako lekua irabazteko asmoz, egun beribilek kolonizatuta dituzten guneetan. Ohar horretan neurri hauek zerrendatzen dira:

- Kaleen irekiera (Ulía) edo koexistentziarako bideen zabaltzea (Bidasoa).
- Norabide bakarreko bideak ezartzea (Ulía, Azkuene, Oiartzun...)
- Lur azpiko aparkalekuen eraikuntza, ekimen pribatu (Toki Alai, Araneder eta Pescadería kaleetan) zein ekimen publikokoak (Azkuene).

Bizilagunek proposamen bat helarazi diote udalari, zonalde horretan 20:00etatik aurrera aparkatu ahal izatea eskatuz. Udalak ezetz erantzun du, beraien esanetan neurri honek partzialki erantzungo liokeelako soilik arazoari, oinezkoen eskubideak zein bestelako egoerak ahaztuz.




Udalak azaldu duenez, helburua alternatibak sortzen diren heinean oinezkoentzat lekuak berreskuratzea da, eta zentzu horretan lan egiten jarraitzeko asmoa azaldu du. Gaineratu dutenez, neurri hau ez dagokio soilik Ulia Etorbideari, eta udalaren politikaren neurri orokorra da.

Aitzitik, bertako bizilagunek diote udaltzainen presio ikaragarria pairatzen ai direla zonaldean. "hiru atarien zonaldean 8 udaltzain izan ditugu isunak jartzen. Edozein orduan jartzen dira isunak. Lehen hemendik ez zen sekula ageri udaltzainik. Orain aldiz ordu oro ditugu gainean" dio Isabelek.

Trintxerpe bezalako zonaldeetan aparkalekuen gabeziaren auzia ez da berria. Erronka da oinezko zein autoen arteko elkarbizitzarako formula egokienak bilatzea, baina erronka ez da nolanahikoa biztanleriaren dentsitatea handia den guneetan. Bien bitartean Trintxerpeko goialdeko bizilagun askok haserre jarraitzen du.

## Merkataritzari eta hiri-berriztapenari buruzko jardunaldi dibulgatzaileak



Laurak Bat Pasaiako Merkatari Elkarteak Merkataritzari eta hiri-berriztapenari buruzko jardunaldi dibulgatzaileak antolatu ditu. Gai eta partehartzaile desberdinak bildu dituzte azaroak 6,7,11,12 eta 13an egin diren hitzaldi eta mahai inguruetan.

Jardunaldiek bi alor jorratu dituzte, "Merkataritza eta hiri-berriztapena" alde batetik eta "Merkataritza berria, banaketa eta zerbitzuak Pasaian".

Jardunaldi hauetatik 4 Trintxerpeko Alkate-Ordetzan egin dira. Hauek hain zuzen ere:

-Trintxerpe eta bere inguruko hiri-berriztapen egitasmoak

-Hiri berriztapena, turismo garapena eta merkataritza: beste esperientzia batzuen azterketa.

-Kataluniako Merkatari Elkarteen esperientzia (Cerdanyola eta Granollers)

-Hiri-berriztapena, turismo garapena: udalerriko merkataritza tradizionalarentzako aukera berriak

## Justo Fernández arrantzalearen heriotza salatzeko kontzentrazioa

Justo Fernández Garcés, iragan azaroaren 16an desagertu zen Capbretongo Golkoan. Arrantzale pasaitarra itsasora erori zen Ondarroako Mikel izeneko itsasontzitik bertan lanean zebilela. Erori zen unean eguraldia txarra zen, eta marinelaren gorpua uretan desagertu zen. Heriotza honen ondorioz, lan istripuak eta zehazki itsasoan arrantzaleek pairatzen duten lan egoera salatzeko kontzentrazioak egin dira Ondarroan nahiz Pasaian. Trintxerpen, iragan azaroaren 16an egin zen kontzentrazioa merkatuaren atarian. Pasaiako ezker abertzaleak deituta, eta 'arrantzaleekin bat. Lan istripuei Stop' lelopean, bildutakoek arrantzaleen lan baldintzen prekarietatea salatu zuten, eta desagertutako arrantzalearen senitartekoei beraien elkartasuna adierazi zieten. Sektore honetako sindikatuek ohartarazi dute iazko azaroaz geroztik itsasoko istripuetan zortzi marinel hil direla, eta gogorarazi nahi izan dute, itsasoan segurtasun neurriak ez direla betetzen.

majestik
Oarso 13, behea esk. Pasai Antxo
Tel. 943 34 00 64 Fax 943 52 97 83
Irekita: 10:00/13:00 eta 16:00/20:00
Urtarrilak 22tik aurrera Larunbat arratsaldez irekita
WEB:http://www.iturgaiz.com
E-mail:majestik@iturgaiz.com

*Pasai Antxoko dendan, nazioko zein inportazioko irudimenezko oihalen erakusketa handia eskaintzen dugu; eta Lezoko industrialdeko biltegian, eskaparateen apainketarako edozein motatako figurak dituzu alokatzeko. Gainera, mota guztietako karrozak 2000m2-ko erakusketan.*

br

## ABENDUA 2002

Hona hemen abendurako kultur agenda. Eskaintza zabala duzu eskuragarri hilabete guztian zehar. Gogoratu zure elkarte edo lan-taldeko ekintzek ere leku bat izan dezaketela hemen. Animatu eta bidali informazioa!

### GABONETAKO HAUR JAIA 2002

**URTERO BEZALA, UDALAREN GAZTE ETA KIROL SAILAK, AISIALDI ARLOKO HERRIKO TALDEEKIN BATERA GABONETAKO HAUR JAIA ANTOLATU DU. KANTAURI LUDOTEKA, KALE HEZITZAILEAK, BOVÉDA, EKAITZA, IÑALKINE, TXIMISTA ETA DONIBANEKO GAZTE TALDEEK HARTU DUTE PARTE, JOKU, TAILER PAILAZO ETA TXOTXONGILO EKITALDI UGARI IZANGO DUEN EGITARAUAREN PRESTAKETAN.**

**ORDUTEGIA:** ARRATSALDEKO 16:00ETATIK 19:00ETARA.
**DATA:** ABENDUAREN 23, 24, 26 ETA 27AN.

**DONIBANEN:**
**ABENDUAREN 23AN:** JOKOAK ETA TAILERRAK
**ABENDUAREN 24AN:** JOKOAK ETA MARSEL AZTIA "MAGIA POTAGIA" IKUSKIZUNAREKIN.
**ABENDUAREN 26AN:** JOKOAK ETA TXOKOLATADA.
**ABENDUAREN 27AN:** JOKOAK ETA ROSA Mª MARTINEZ IPUIN KONTALARIA. "ROSA, KONTAIDAZU IPUIN BAT".

**SAN PEDRON:**
**ABENDUAREN 23AN: JOKOAK ETA KIKI ETA MOKO PAILAZOAK "AMA-LURRA BIHOTZEAN" IKUSKIZUNAREKIN.**
**ABENDUAREN 24AN: JOKOAK ETA TAILERRAK.**
**ABENDUAREN 26AN: JOKOAK ETA "EUSKAL HERRIKO ITSASOA" IZENBURUKO ANTZERKIA.**

**TRINTXERPEN:**
**ABENDUAREN 23AN:** JOKOAK ETA BIHAR TXOTXONGILO TALDEA "SIRENATXOA" IKUSKIZUNAREKIN.
**ABENDUAREN 24AN:** JOKOAK ETA TAILERRAK.
**ABENDUAREN 26AN:** JOKOAK ETA GARI, MONTXO ETA JOSE LONTXO: "NON DAGO TRUKOA?" .
**ABENDUAREN 27AN:** JOKOAK ETA TXOKOLATADA.

**ANTXON:**
**ABENDUAREN 23AN:** JOKOAK ETA TAILERRAK.
**ABENDUAREN 24AN:** JOKUOK ETA TAUPADA TALDEA "PRINTZE TXIKIA" IKUSKIZUNAREKIN.
**ABENDUAREN 26AN:** JOKOAK ETA TXOKOLATADA.
**ABENDUAREN 27AN:** JOKOAK ETA KUKO, TRUKO ETA BOLENWAIDER PAILAZOAK.

**LEKUAK:**
ANTXON: KULTUR ETXEAN.
TRINTXERPEN: KARMENGO AMA ESKOLAN.
SAN PEDRON: UDAL ARETOAN
DONIBANEN: LUDOTEKAN.



### LEHIAKETA

Antxon:

Abenduaren 20an, Marrazki Lehiaketaren sari banaketa Kultur Etxean, arratsaldeko 18:00etan.

### MUSIKA

Trintxerpen:

Abenduaren 20an, Txalaparta, Ugarte anaiekin, alkateordetzan.

### ERAKUSKETA

San Pedron:

Abenduaren 13tik eta urtarrilak 5 arte 12cm izeneko erakusketa Udal Aretoan.

### JAIAK

Gabonak iristearekin batera, Santo Tomás feriak, eta Olentzero, barruti guztietan ohiko ordu eta tokietan izango dira .





Tecnosound LAECOR S.L.
Andoni Linazasoro
EVALUACIÓN Y CONTROL DE RUIDO
MEDICIONES Y CERTIFICADOS DE AISLAMIENTO
ACÚSTICA EN EDIFICACIÓN
MAPAS DE IMPACTO
TRÁFICO, FÁBRICAS, ETC.
Hamarretxeta, 25 • Tel. y Fax: 943 51 21 48 • MÓVIL 629 41 67 36
20110 PASAI ANTXO - GIPUZKOA

Egun hauetan ez ahaztu guri bisitatxo bat egitea

EKILORE
OPARIAK
Eguberri on!
Zumalakarregi, 8 - Tel.: 943 522 655

Patxi Estankoa
erretzailearen txokoa
Liburu eta aldizkarietan aukera zabala
Eskalantegi kalea, 29 • PASAI ANTXO
Tel.: 943 512 342




Blas de Lezo 7 · 20110 PASAI ANTXO
✆ 943 510 599

**illunbe**

FERRETERIA - BURDINDEGIA

ETXERAKO
NAHIZ LANTOKIRAKO
GUZTIA DUGU

ZATOZ!

Euskadi Etorbidea, 51 - Tel./Fax: 943 396 504
Jaizkibel, 4 - Tel./Fax: 943 397 154
TRINTXERPE

FAYMA
**MILAR**
Elektrogailuak-Mugikorrak
Irrati TB-Bideoa-Soinua
INFORMATIKA
Biteri kalea, 23 • 20100 ERRENTERIA
Tel.: 943 512 195-512 540 • Faxa:943 529 206

LILURA
markogintza
- moldurak - izpiluak - grabatuak
Markogintzarako
behar duzun guzia
Mamut merkatagunea Tel.: 943 491 987

Mass
Atsedenerako sistemak
Sistemas de descanso

Donosti kalea 5 - Tel.: 943 511 246
20100 ERRENTERIA

OSINA
natur denda
Aseeoramendua:
Kontsulta makrobiotikoa
BIRKENSTOCK
La salud a sus pies
Donostia kalea, 15 ERRENTERIA (Iztieta)
Tfonoa: 943 51 23 95 - Fax: 943 51 95 10


*helmugan gaituzu*

Portuan emandako urteek, seguritatea eta eraginkortasuna
bermatzen dute
zure merkantzia helmugaraino onean iristea.

Pasaiako Portua
www.pasaiakoportua.com
Pasaiako portuko agintaritza

ELZU
Industrial, s. a.
Ostalaritza
Zerbitzuak
*Edalontziak, Kazuelak,*
*mahai tresnak, mantelak, arropa...*
Martin Etxeberria, 9 - 11
Posta kutxa: 235
Tel.: 943 511 237 - 943 512 235
Faxa: 943 512 235
20100 **ERRENTERIA** -Gipuzkoa-

• Txakur ileapaindegia.
Abere denda.
• Txakurkumeak, arraiak, txoriak...
• Janariak eta bestelakoak.
ZAUNKA
Pza. Koldo Mitxelena 8 (Esmalteria)
20100 ERRENTERIA - Gipuzkoa -
Tel.: 943 515 162

XENPELAR
Kulturdenda
LIBURUDENDA
KIOSKOA
PAPERTEGIA
FOTOKOPIAK
MUSIKA
KAMISETAK
GAXON ZUHARDIA, 7 • 20100 ORERETA
TEL.: 943 510 104

Gestoría Salsamendi
**Lan eta zerga-aholkularitza - Trafiko kudeaketa**
**Eskriturak – Aseguruak**
Mª de Lezo 5 - Tel.: 943 344 374 - Tel.-Fax: 943 523251 - 20100 errenteria
E-mail: salsamend@euskalnet.net


# 2002.eko NEGUKO KANPAINA

## SARIAK:
## 1.000€ko 2 EROSKETA-BALE
## 300€ko 12 EROSKETA-BALE

**ZOZKETA: abenduak 13**

**Baldintza Orokorrak: Eskuratutako sariaren erdia gutxienez, erosketa-balea eman zizuteneko establezimenduan gastatu beharko duzu**



*Zorionak eta Eguberri on!*


e errenkoalde
merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu elkartea
asociación de comercio, hostelería y servicios




EDOZEIN MOTAKO LANAK EGITEN DITUGU: GILTZARRIAK, EGUTEGIAK, KATALOGOAK, FOLLETOAK, KARTELAK,... ZURI EGOKITUTAKO PUBLIZITATEA.

IRAGARRI ZAITEZ GURE KOMUNIKABIDEETAN

Orratx! • Lau Haizetara • Branka • • Oiartzun Irratia

kolore
>diseinu&komunikazioa

kolore
>diseinu&komunikazioa

IRAGARRI ZAITEZ GURE KOMUNIKABIDEETAN

Orratx! • Lau Haizetara • Branka • • Oiartzun Irratia

Kale Nagusia, 3 behea (Ganboa etxea)
20100 LEZO - Gipuzkoa
Tel.: 943 344 626
orratx@topagunea.com




# zuk zeuk!

## LIBURUA
**'PAPEREZKO HEGAZKINAK '**
Lutxo Egia. Susa.




Nola aldatzen diren gauzak!! Adibidez, gure lagun asko eta ezagun gehiago eta hainbat senide etxeak utzi eta atzerrira jotzen dutelako. Esaten dute ez dugula (gazteok) lan gogorrik egin nahi, eta oso burges bihurtu garela. Kontua da Bartzelona, edo London edo auskalo nora joaten garela, ikasketak amaitzera, eta hortik, eta lan merkatuaren baldintza bereziengatik salatzen gaituztela modu horretan. Edonola ere, ezin ukatu honek guztiak baduela bere alderdi ona; galde diezaiotela lagunaren, edo lehengusuaren etxera hiri handira joan den hari, autobusa hartu eta aitzakiarekin parranda itzelak egiteko beta izan duen hari, batik bat.

Lutxo Egia fenomeno honetaz ari zaigu bere lehen eleberri bikain honetan. Eta fenomeno honi "Brunete" sonatuaren zera gehitzen dio. Gazte bat London aldean dabil, ikasketak medio, eta honi, hots, Euskal Herriari diogun menpekotasun bitxi horri eutsiz,

Espainiar hedabideak irakurri behar ditu, albisteen bila. Bitartean, Gernika bonbardatuan aritutako kazetari baten inguruko ikerketak egingo ditu, eta hortik, paralelismo esanguratsu horretatik abiatuko da liburuaren trama berezia.▮



LANDER GARRO

## FILMEA
**'TANGUY'**
Zuz.: Etienne Chatiliez. Akt.: Eric Berger, André Dussollier, Sabine Azéma




Tarteka, normala izaten da karteldegiko film guztien jarraipena ez izatea, eta gainera film europarrek izaten duten txokoa oso handia ez dela kontutan hartuta, bada oraingoan bideo edo DVD formatuan ikusitako pelikula hartuko dut hizpide.
Tanguy filma Frantzian dago kokatua, eta 28 urteko semeaz erdi nazkatuta dauden gurasoek nolako elkarbizitza duten erakusten digu Etienne Chatiliez -en filmak. Semea oso zuzena da, heziketa onekoa, eta ez dizkie buruhauste gehiegirik ekartzen gurasoei, tarteka emakume baten presentzia edota beraien intimitatea apurtzea besterik ez.

Baina semeari emanzipatzeko garaia iritsi zaio, eta oso gustura dago amatxoren etxean, gehiegi, eta etengabe bere etxetik alde egiteko unea atzeratu besterik ez du egiten. Orduan gurasoek aurre hartu eta "putaditak" egiten dizkiote: erropa puskatu, aspiradora ordu txikietan gela ondoan piztu, jendaurrean erridikuloan utzi, ordurarte zituen kutixien agortzea,.... Hasieran erdi konpromezuz egiten dute, baina gustua hartzen diote, eta gainditzu doaz, sekulakoak egiteraino.

Frantziar zinemaren uzta oparoaren beste erakusgarri bat, Hollywood-eko estiloaren zantzu batzu ageri badira ere, oraindik Lumiere anaien lurraldetik datorkigun irri katxondo bat. Zer egin petit garçon honekin? Erantzunak filma ikusi ondoren.▮



ENAUT GANTXEGI

## KONTZERTUA
**PAUL WELLER + OASIS**
Bilboko La Casillan, 2002-11-20.



Paul Weller eta Noel Gallagher (Oasis).

Gau handia izango zela antzematen zen La Casillara sartu eta berehala.

Paul Weller aurkezpenik beharko ez lukeen ARTISTA puska dugu. Musikagintzan lehenengo pausuak The Jam taldearekin eman zituen 70eko hamarkadaren amaieran, *punk*-aren mezuari *mod* musika mota gehituz, Thatcherismoari etengabeko ostikadak emanez eta belaunaldi oso batengan eraginez. 80ko hamarkadaren erdialdean, The Jam-en amaierarekin batera, Style Council taldearen sortzailea izan zen, heldutasun musikalera iristeko saiakera antzu batetan, nire ustez. Gaur egun bakarlari gisa azaltzen zaigu Paul, oraintxe munduari bira ematen ari delarik bere bilduma berriaren aurkezpenean.

Zuzeneko lanean dotorezia, energia, glamourra, berotasuna, sentikortasuna isladatzen du Wellerrek abesti bakoitzean, britainiarrek hain ondo zaintzen dituzten zuzeneko doinu nahasketak lagun, eta Ocean Colour Scene taldeko bi kide harekin baxuan eta kitarran zituela. The Jam-en garaiko abesti batzuk entzuteko aukera izan genuen ere, 'In the crowd' eta 'This is entertainment' haien artean. La Casilla, noski, erortzear.

Oasis-i buruz beste batetan hitz egingo dizuet...▮



URKO ETXEBESTE

# Denis Itxaso: «Gehiegi maite dut nire herria abertzale izateko»



"Con mano izquierda" du izenburua Denis Itxasok alderdikide duen Gemma Zabaletarekin argitaratu berri duen liburuak. Herriko PSE-EEko zinegotzia da eta alderdiaren komunikazio arduraduna izan da orain gutxi arte. "Euskal Sozilismo Berria" korrontearen partaidea da Denis eta liburuan islatu ditu egungo panorama politikoari buruzko bere hausnarketak.



**"Con mano izquierda" da Gemma Zabaletak eta zuk argitaratu berri duzuen liburuaren izenburua. Nola laburbilduko zenuke liburu honen mamia?**
Nik uste dut Euskadin badagoela krisialdi politiko bat, baina ez bakarrik elkarrizketarik ez dagoelako, baizik eta politika bera suntsituta dagoelako beste agente batzuen eraginagatik; judizializazioarengatik, indarkeriarengatik... finean politikarik eza dagoelako. Kezka hori liburuan zehar momentu oro azaltzen da. Politika behar dugu, eta politika berri horretan demokraziaren sakontze bat ere behar da. Demokraziaren beste definizio sakonago bat. Gaur egun demokrazia oso mugatuta azaltzen da batzuek egiten dituzten interpretazio txikiengatik. Alde horretatik, irudimena, freskura, eta berritze hori dago liburuan zehar.

**"Euskal Sozialsmo Berria" izenaz ezagutu den PSE-EEren barruko korrontearen kide zaitugu. Nola definituko zenuke , besteak beste, Gemma Zabaletak eta zuk defenditzen duzuen korronte hau eta zer nolako indarra du korronte honek zure alderdiaren barruan?**
Errealitatea da oso gutxi garela. Pasa den kongresuan % 6a atera genuen. Gaur egun PSEren baseetan ezinegon hori sumatzen da, beraz, ez da %6 hori soilik, baina askoz handiagoa ere ez da. Azken kongresuan, alderdiko bi korronte handiek egin zuten topo eta topo egite horretan gu espaziorik gabe gelditu ginen. Nik atera nuen ondoriorik garbiena izan zen ez zela momentua. Planteamentu horiek beste mometu lasaiago batean planteatu behar ziren, kongresu hartan nork agindu behar zuen erabakitzen ari zelako. Botere kontu bat besterik ez zen eta gu ez ginen hainbeste ari boterearengatik, baizik eta alderdiaren planteamenduak aldatzeko beharraz. Alde horretatik oso testimonilak gara, baina nik uste dut egundoko indar morala daukagula alderdiaren barruan. Alderdia ez da Euskadin benetan errotuko, planteamentu hauek egiten ez dituen bitartean, eta planteamentu horiek dira, inoiz abertzaletasunaren alternatiba izan nahi badu, ezin duela euskal nortasun eta identitatea kolokan jarri. Nik uste dut abertzaletasunarekin bat egin behar duela horretan, euskal nortasun hori defenditu behar duela, baina ezkertiar planteamentu batzuetatik. Horrekin ez dut esan nahi alderdi sozialista abertzalea egin behar denik. Askotan esaten dut nik gehiegi maite dudala nire herria abertzale izateko. Ni ez naiz abertzale sentitzen, baina bai herri honetan sustraitua, eta bai euskararen aldekoa eta abar. Inoiz euskal sozialismoak arrakasta edukitzeko, askoz ere planteamentu posibilistagoak, errealagoak, eta bakearen aldekoak egin behar ditu. Arlo horretan alderdi sozialistak defizit hori du.




**Liburuaren lehenengo zatian, azkeneko sei urteen analisia egiten duzue. Baiezta al daiteke Ardanzaren garaiarekiko nolabaiteko nostalgia dagoela liburuan?**
Gu, analisia egin duguean, konturatu gara momentu zehatz batzuk izan zirela noiz gauzak beste era batera egiteko posibilitatea gertatu zen. Gaur egun gertatu den guztia ikusita, pentsatzen dugu momentu hura interesgarria izan zitekeela gauzak aldatzeko. Nostalgiarik ez, zeren nik uste dut beti dagoela etorkizunean gauzak hobetzeko aukera, beraz, guk aurrera begiratzen dugu beti. Baina bai, egia da pasa zaizkigun trenak ere kontuan hartu behar ditugula, etorkizunean gauzak hobeto egiteko.

**Kontsentsua bilatzeko beharra behin eta berriz azpimarratu duzue liburuan. Zerk aldatu behar du kontsentsu hori benetan gauza dadin?**
Alde batetik, gainontzekoek ere egiaren zati bat dutela jakitea. Bestetik, jakin behar dugu bide honetan guztiok utzi beharko dugula gure asmoetatik zeozer bidean. Nik uste dut hori behar dela kontsentsua bilatzeko. Zergatik? Herri honek erakutsi duelako behin eta berriro, era askotarikoa dela, eta hori ez da asmakizun bat. Beti zain gaude ia hurrengo hauteskundeetan irabazten dugun eta orduan gauzak aldatzen ditugun eta nik uste dut hurrengo hauteskundeetan abertzaleek edo ez abertzaleek irabazi dezaketela, baina hurrengoan alderantziz gerta daitekeela eta, herri honek bide horretatik irtenbiderik ez duela. Zeinek zeini irabaziko dion zain baldin bagaude, Euskal Herriko politika ez dugu inoiz normalizatuko. Gutxienezko kontsentsu demo-

kratiko batzuk gauzatu beharko dira. Euskal Herrian bizi diren kultura politikoen sintesi bat bilatu behar da, eta horretarako, ezkerrak askoz paper garrantzitsuagoa jokatu behar du. Ezkerra diodanean, ezker guztiak esan nahi dut.

**Su etenaren garaian euskal preso politikoak gertuko kartzeletara ez hurbildu izana akats gisa ulertu duzue. Presoak Euskal Herrira ekartzearen alde zaude?**
Nik uste dut hori ez dela iritzi kontu bat. Horrek horrela izan behar du. Alde batetik, ez da batere humanitarioa, eta hori da nire ustez garrantzitsuena, eta bestetik, ez da legezkoa. Hirugarrenik esan ez dela eraginkorra. Eraginkorra balitz ere, seguruenik horren kontra egongo nintzateke, baina gainera ez da eraginkorra, gorroto handiagoa sortzea eta indarkeriaren alde dauden sektore horiek filak are gehiago estutzea baino ez da lortzen. Bere momentuan uler zitekeen neurri bat izan zitekeela, baina ez du emaitzarik eman eta gainera, lehen aipatzen nuena, ez da humaitarioa eta ez da bidezkoa.



**Lizarra-Garaziko akordioan ez abertzaleen aurkako bazterketa dinamika abian ipini zela defenditu da behin eta berriz PSE-EEetik. Hau sinestuta zuk nola ulertzen duzu Ezker Batuak Lizarrako akordioan jokatu duen papera?**
Nik uste dut jokatu zuela hasieran, baina oso paper testimonial batekin. Ezker Batuak ez zion Lizarrako akordioari pluraltasun etiketa hori ematen. Gainontzeko alderdi abertzaleak saiatu ziren hori esaten, baina nik uste dut, hori ez zela inoiz horrela izan. Gero ikusi genuen EB atera zela hortik ikusi zuelako jarrera baztertzaileak gertatzen ari zirela. Momentu horretan abertzaleen arteko indar akumulazioa gertatu zen pentsatuz horrek eramango zituela abertzaleak irabaztera eta era berean gauzak konpontzera. Esperientzia horrek, eta baita ez abertzaleen artean soilik hartu dituzten ekimenek ere, adibidez pacto antiterrorista delakoak, ez dute ezertarako balio, baldin eta trasbersalak ez badira eta baldin eta hasieran komentatzen genituen kontsentsu horiek bilatzen ez badituzte.

**PSE-EEk Batasunaren ilegalizazioa babestu du. Zu, aitzitik, neurri horren kontra ageri zara. Zer dela eta?**
Ez zaidalako bidezkoa iruditzen; ez zaidalako legala iruditzen, eta hirugarrenik, berriro ere, ez zaidalako eraginkora iruditzen. Baina aldez aurretik esan nahi dut, nahiz eta eraginkorra izan, ez nintzatekela horren alde egongo, iruditzen zaidalako zuzenbide estatua kolokan jartzen duela oso, eta askatasunak kolokan jartzen dituela. Eta ez dut nik esaten; jurista oso eminenteek ere horrela adierazi dute. Ilegalizazioak gauzak okertu egingo ditu. Legez kanpo ibiltzeak ekarriko du politikan jokatu beharrean, politikatik kanpo jokatzera behartuko duzula hainbat jende, eta gainera esperientzia hori nahiko zaharra da Euskal Herrian. Horrelako prozesuetan ezinbestekoa da beso politikoa indartzea, eta ahalegin guztiak egitea beso politikoa isolatuta ez uzteko, batez ere, mundu horietan azkenean militarrek edukitzen dutelako azken hitza. Horrekin gainera indarkeriaren alde dauden sektore horiek indartzea besterik ez duzu lortzen. Batasunak gaur egun babes politikoa behar du. Aldez aurretik indarkeriatik aldentzeko keinu asko egin behar ditu, baina hori baino inportanteagoa den beste gauza bat; bere munduan beste kultura politiko berri bat probokatzen hasi eta, batez ere ETArekin ahalegin guztiak egin gure alde, demokrazioaren alde, indarkeria ezaren alde... gaur egun beraiek bakarrik egin dezakete hori. Horregatik iruditzen zait legez kanpo uztea ez dela batere eraginkorra. ETA beti egon da legez kanpo, baina hor egon dira. Legez kanpo utziko ditugu, baina hor daude. Ez dira desagertuko, eta nik nire herrira etortzen naizen bakoitzean eta pintadak ikusten ditudanean, nahiz eta ilegalak diren, beraien presentzia hor dago, legeak ez ditu ezabatzen; ez ditu borratzen.

«NIRE HERRIRA ETORTZEN NAIZEN BAKOITZEAN ETA PINTADAK IKUSTEN DITUDANEAN, NAHIZ ETA ILEGALAK DIREN, BERAIEN PRESENTZIA HOR DAGO, LEGEAK EZ DITU EZABATZEN; EZ DITU BORRATZEN»

**Liburuan, PSE-EE PPren politika ildotik bereiztu beharra aldarrikatzen duzue, ezkerreko berezko diskurtso baten beharra azpimarratuz, eta ezker abertzalearekin elkarrizketa gerta dadin ekarpenak egitearen alde apustu egiten duzue. Nolako harrera dute egun proposamen hauek zuen alderdian?**
Ez dago kultura politiko nahikoa hori ulertzeko gaur egun, zeren, indarkeriaren ondorioz bizi dugun egoera honetan, jendea oso militarizatuta dago eta bere egoeraren errudun jotzen ditu Batasuna eta MLNVren inguruan dauden erakunde guztiak. Nik ulertzen dut jende askok gure planteamentuak ez ulertzea, eta pentsatzea nolabait ez dagoela eskubiderik sufritzen ari garena sufritzeko, eta gainera beraiek ez kondenatzeko. Baina gertatzen dena zera da; nik ez dakit noiz, ez dakit non, ez dakit zeintzuk, eta ez dakit nola, baina beti jakin izan dut amets gaizto hau hitz egiten bukatuko dela eta mahai baten inguruan. Alde horretatik ondo egingo genuke Batasuna isolatuko ez bagenu. Badakigu zeintzuk diren gaur egungo planteamentuak, baina nik beti pentsatu izan dut beraiekin hitz egiteak badituela bere abantailak; batez ere askoz ere hobeto jakingo dutelako zein den gure egoera, zailago izango zaielako ezetz esatea eta nik beti sinestu dudalako persuasio gaitasunean. Batzuek pentsatzen dute Batasunarekin hitz egin nahi dugula beldurra daukagulako, eta inolaz ere ez da hori. Egia da beraiek indarkeria kondenatzen ez duten bitartean hori egundoko oztopoa dela, baina nik dakidala oraindik PSOEko hainbat eta hainbat agintarik ez du kondenatu GALen kontua. Horrekin demagogia asko dagoela uste dut.

«NIK EZ DAKIT NOIZ, EZ DAKIT NON, EZ DAKIT ZEINTZUK, ETA EZ DAKIT NOLA, BAINA BETI JAKIN IZAN DUT AMETS GAIZTO HAU HITZ EGITEN BUKATUKO DELA ETA MAHAI BATEN INGURUAN»

Orain dela ez asko Pasaian Batasunako hainbat jenderekin torturaren aurkako manifestaldi batean izan nintzen; ni bakarrik nintzen beraiekin, eta egia esan, oso egoera deserosoa zen niretzako, baina nik helarazi nahi izan nien mezua izan zen hurrengoan nire lagun bati ezer gertatuko balitzaio, nahi nukeela torturaren aurkako koordinadora honek ulertzea ez dagoela hiltzea baino tortura handiagorik. Nik egunero eskoltarekin ibili behar izate hori egundoko tortura dela. Eta nahi nukeela koherente izatea eta alde horretatik, beraiek ere aurrerapausoak ematea. Baina horretarako nik ere aurrerapausoak eman behar ditut, eta ezin naiz gelditu etxean lasai esanez kondenatu dezatela indarkeria, nik ez baldin badiet erakusten nik ere diskurso koherente bat daukadala eta beraien sufrimentuak ere ikusten ditudala. Horretarako nago ni prest beraiekin hitz egitera.



**Zuk Pasaia-Lezo Lizeoan ikasi duzu. Ikastolen mugimenduaren aurka jaurtitzen diren irainen aurrean zer duzu esateko?**
Madrilen egon ginen liburua aurkezten eta esan nuen lehendabiziko gauza izan zen, " yo soy un socialista de ikastola" . Esan nien nazkatuta nengoela ikastolen inguruan botatzen ziren irain horiek guztiak entzuteaz, iruditzen zitzaidalako, estereotipo bat zela. Ez daukat dudarik ikastola batzuetan konportamendu batzuk indartzen direla, edo nolabait irudi distortsionatu bat ematen dela Euskal Herriari buruz, baina Espainiako hainbat eta hainbat eskolatan ere horrelako kapituluak ematen dira eta Espainiako historia ere deformatu egiten da. Horrek ez du esan nahi gainera ikastola guztiak indarkeriaren diskurtsoa sendotzen dutenik. Ni Pasaia-Lezo Lizeoko ikasle izan naiz eta sozialista naiz. Ni neu froga bat naiz. Horrelako akusazioak egiteak ez dio batere mesederik egiten, ez euskal kulturari ez eta alderdi ez abertzaleei inoiz sinesgarritasuna lortu eta alternatiba izateko.
Horrekin esan nai dudana da ez zaidala batere gustatzen ikastolekin egiten ari dena ez eta orokorrean euskararen munduarekin egiten ari dena ere.

**Elkarriren bake-konferentzia bukatu berri da. Nola baloratzen duzu konferentziaren emaitza?**
Azkenean pixka bat distortsionatuta gelditu da Ibarretxeren planarengatik, baina berez egiten dituen ekarpenak oso interesgarriak dira. Oso posibilistak dira eta egundoko esfortzua egin dute Euskal Herrian bizi diren kultura politiko guztien arten sintesi bat bilatzeko, elkargune bat eratzeko, eta hori ez da gutxi gaur egun. Alderdi Popularra izan ezik, gainontzeko alderdietako kideak han izan dira, eta nik uste dut bertan ikusi dugula zenbat gauza utzi behar ditugun gure atzean benetan inoiz Euskal Herrian adostasun batera iritsi nahi badugu. Alde horretatik esfortzua egundokoa izan da eta nik txalotzen dut. Txalotzen dut Jonan Fernandez bezalako jendeak egiten duen esfortzu desinteresatua, bakean sinesten dutelako. Horrelako planteamentuak eramango gaitutze inoiz irtenbide batera. Parte hartu dutenak alderdi guztietako sektore heterodoxoenak izan dira. Kultura horretatik etorriko da, etortzen bada inoiz, bakea.

**Baieztapen hau zure liburuan azaltzen da: "garrantzitsuagoa da ETAk hiltzeari uztea, Batasunak bortizkeria kondenatzea baino". Aldiz, irtenbideaz hitz egiten denean, Batasunak bortizkeria kondenatu ez izana behin eta berriz oztopo bezala ageri da. Zer egin dezake PSE-EE egoera honi buelta emateko?**
Kondizio moral batzuk beste baldintza moral handiagoez ordezkatu. Egia da Batasunak indarkeria kondenatzea garrantzitsua dela, baino are garrantzitsuagoa da indarkeriaren kontra eta bakearen alde lan egitea. Zer egin daiteke? Egiten ari denaren kontrakoa, hau da, sektore politikoenak erakarri, sektore politikoenak indartu. Hau diskrezio grado batekin egin daiteke. Alderdi sozialista gobernura iristen baldin bada, benetan bakearen aldeko diskurtso berri bat egin eta plangintza berri bat egin beharko du, jakinik hemen daukagun erronkarik handiena indarkeriarekin bukatzea eta bakea lortzea dela. Gaur egun dauden kontsentsu politikoak, gero eta eskasagoak, handitu behar dira. 78-79an eraikita-

ko marko juridiko-politikoak, Konstituzioak zer esanik ez, Euskadin ez zelako berretsi, baina baita estatutuak ere, duten adhesio politikoa handitu behar dira. Horretarako marko jurídiko-politiko berri eta erosoago bat eraiki beharko dugu denon artean. Hori da erronka; modelo integratzaile bat egitea, batez ere abertzale eta ez abertzaleen artean. Europak egun eskaintzen dizkigun posibilitateen artean aurkituko dugu formula politikoren bat, subirautza konpartituak orain hain ospetsuak direnak, edo euro-erregio bat... Irudimena erabiltzen badugu, egin diateke herri bat denontzat.

**Ibarretxeren proposamenaren aurrean PSEk duen jarrera zein den badakigu. Baina zein iritzi du Denisek proposamen honi buruz?**
Proposamenean badaude aztarna federalista interesgarri batzuk eta badaude Ernest Lluchek eta Herrero de Miñonek egindako ekarpen interesgarri batzuk. Alde horretatik ez zait iruditzen infernura botatzeko plan bat denik, baina egia esan, demokrazian zerbaitek garrantzia baldin badu, hori metodoa da, eta prozedura aldetik planak ez du asmatzen, kontentsuaren printzipioa gehiengoarengatik ordezkatzen duelako, hau da, planteatzen du hemendik urtebetera, eta indarkeriarik gabe, erreferendum bat egitea, eta erreferendum horretan plangintza horretatik etortzen dena bozketara eramango dela. Horrek herriaren mapa bat emango digu; erdiak baietz esango du eta beste erdiak ezetz esango du. Nik uste dut hori ez dela metodo egokia. Metodoa kontsentsuarena da. Alde horretatik Ibarretxeren plana hankamotz gelditzen dela pentsastzen dut. Prozesuak zilegitasunik izan dezan, askatasunean adierazteko aukera izan behar dute sektore guztiek. Aitzitik, badirudi Ibarretxek esaten digula bozkatzeko orduan bakarrik dela beharrezkoa indarkeria eza. Indarkeriaren desagerpena exijitu behar da, batez ere alderdi popularrak eta alderdi sozilistak askatasunean Euskal Herriarentzako proiektua azal dezagun.

**Udal hauteskundeak aurki ospatzekoak dira. Batetik, jazarpen bortitzkeria eta bestetik, Batasunaren ilegalizazioa. Nola irudikatzen dituzu hauteskundeak?**
Inoiz baino okerrago. Nik uste dut ia-ia gerra zibilistak izango direla. Egundoko krispazioarekin, egundoko ezinegonarekin. Hau da, kiroldegiez, igerilekuez eta farolez hitz egiteko astirik gabe, eta aukerarik gabe. Lapurtu egingo zaio herriari udal eztabaida, eta hori azkenean herri honetan gertatzen denaren erakusle bat da. Politika erabat desagertuta dago eta ezin izango dugu normaltasunez udalari eta herriari buruz hitz egin. Hori peaje handia da.

**Herrian Batasunak du gehiengoa. Ilegalizaioak nola eragingo dio gure udalari?**
Ez dakit. Jakin nahi nuke, baina ez dut horretarako erantzunik. Herri honetan dauden aukera politiko guztiak aurkeztu ahal izatea nahi nuke, bestela, seguru aski ez direlako hauteskunde erreal batzuk izango eta are gutxiago demokratikoak. Baina esan nahi dut aukera hori ez lukeela Batasunak bakarrik izan behar, beste guztiok ere askatasunean eta baldintza berdinetan aurkeztu behar genukeela, eta tamalez nik esan beharra daukat guk arazo handiak izango ditugula gure kanpaina askatasunean egiteko. Nik errekonozitzen dudan bezala beraien egoera nahi nuke beraiek ere konturatzea eta argi eta garbi esatea egoera hau ez dela bidezkoa.

**Zer dakar 27 urteko gazte baten bizitzan bizkarzainekin bizi behar izateak?**
Drama bat. Gaztetasuna joaten zaizu konturatu gabe. Lagunekin bizikletan joateko aukerarik ez duzula, gauetan ateratzeko edo ligatzeko aukerarik ez duzula; eta egundoko peajea dela. Askotan lagunek esaten didate zer egiten dudan nik pelikula honetan eta nik ere hori pentsatzen dut maiz. Baina herri honek merezi duela pentsatzen dut; merezi duela esfortzu bat egitea gauzak aldatzeko. Plano pertsonalean egundoko sakrifizioa da. Gauzak diren bezala.

**Defenditzen dituzun ideiak defendituz, jende askok pentsa dezake zer egiten duzun PSE-EEn. Zer esango zenieke horrela pentsatzen dutenei?**
PSOEtik kanpo ez lukeela inongo zentzurik defenditzen ditudan planteamenduak defenditzeak. Interesa baldin badu, eta hainbat elkarrizketa egin badizkidate, PSOEn nagoelako da. Saiatzen naiz nire aderdiaren norabidea aldatzen. Badakit gaur egun hori oso ilusorioa dela, eta horren argazkia David Goliaten aurka dela, baina gero eta gehiago gara eta jarraituko dugu indarrak agortu arte. Ni konbentzurik nago alderdi sozialistak noizbait arrakasta izan nahi badu, planteamentu hauetatik pasa beharko duela. Pazientzia behar da eta zain egongo gara.

## motzean



**Utopia:** berreskuratu behar da, galduta baitago.
**Autodeterminazioa:** deabruaren hitz bat, ezertarako balio ez duena, eta ordezkatu behar dena printzipio erakargarriago eta eraginkorrago batengatik.
**Elkarrizketa:** politikaren lanabesik garrantzitsuena.
**Globalizazioa:** inteligentziaz lan eginez gero, aukera bat.
**Independentzia:** aukera zilegi bat.
**Euskara:** nire hizkera.
**Kontsentsua:** Euskal Herrian aplikatu beharreko lehendabiziko kontzepua.
**Demokrazia:** oraindik ere asko eta asko sakondu beharreko kontzeptu bat.
**Bakea:** inperatibo moral bat.
**Desobedientzia:** askotan txiroek daukaten errekurtso bakarra.
**Sozialismoa:** Ausardia.



# Agur Laboa monsinoreari; Agur Josetxori, herriko seme kuttunari



José Sebastian Laboa monsinorea, Josetxo, iragan urriaren 24an hil zen, 79 urte zituela. Laboa Donibanen jaio zen, eta bertan iragan zituen haurtzaro eta gazte garaiak, seminariora alde egin zuen arte. Vatikanoko gotzain eta nuntzioa izan zen urtetan, eta hori dela eta, berak hainbeste maite zuen jaioterritik urrun eman zituen bere bizitzaren urte gehienak. Hala ere, Josetxok ez zituen sekula atzean utzi bere sustraiak, lagunak zein senitartekoak. Laboa ezagutu zuten pertsona ororen ahoetan, hitz goxoak dira nagusi.







Jose Sebastián Laboa, Donibanen jaio zen 1923ko urtarrilaren 20an. Bizkaia auzoan bizi izan zen, bost anai-arrebako familia batean, eta bertan eman zituen seminariora joan arteko urteak. Gerora Teologian eta Zuzenbidean lizentziatuko zen. Bere hasierako asmoa teologia irakasle izatea bazen ere, Cardenal Montinik, gerora Pablo VI.a izango zenak, Vatikanoko gorputz diplomatikoan lan egiteko deitu zion. Horrela Erroman finkatuko zuen bizilekua. Gorputz diplomatikorako lanean aritu zen urte askotan eta baita Latinoamerikarako Propaganda Kongregazioan ere. 1982an, Juan Pablo II.ak gotzain izendatu zuen, artzapezpiku mailarekin. Aita Santuaren nuntzioa izan zen Panaman, Paraguyen eta Libian, eta nazioarteko hainbat gatazkatan egin zituen bitartekaritza lan bikainengatik ezaguna egingo zen. Entzutetsua izan zen, AEB eta Panamaren arteko krisialdian egin zuen lana.

Panamaren inbasioak iraun zuen bitartean herrialde hartako hainbat buruzagi politiko nuntziaturan hartu zituen Laboak. 1989. urteko gabonetan, Noriega nuntziaturan giltzaperatu zen, eta orduan, Laboak, Manuel Noriega AEBekin akordio batera iristea erdietsi zuen. Garai hartan Laboak euskal errefuxiatu talde bat ere hartu zuen nuntziaturan.

Panamatik Paraguayra joan zen, eta bertan ere ez zuen panorama xamurrik aurkitu Stroessner generalaren erregimenaren erorketaren ondorengo garaietan.

Hurrengo erronka Libian aurkituko zuen. Bertan Gadafirekin harremanetan jartzeko ardura izan zuen, Libiako iraultzaren ondorengo lehendabiziko nuntziatura izango zena Trípolin zabaldu ahal izateko.

Vatikanoak lortutako arrakastak aitortu zizkion eta 2000. Urte Jubileoan, Vatikanora iristen ziren estatu buruei harrera egiteko ardura eman zion.

Azkenik, gaixotasun batek jota Euskal Herrira bueltatuko zen, eta bertan, hainbeste maite zuen joiterritik gertu, eta bake eta lasaitasunez beterik, agur esan zion bizitzari.

### Jaioterria bihotzean zeraman monsinorea

Laboa monsinorea sanjundarra izanik, herrian egun dituen senitartekoekin harremanetan jarri nahi izan dugu, ospe handiko gizona zenari buruz, gertuko senitartekoek dituzten oroitzapenak ezagutzeko. Bere lehengusu Nekane Laboak etxean hartu gaitu eta hark kontatu dizkigu Laboa zenaren izakeraren nondik norakoak. " Biziki maite zituen San Juan eta sanjuandarrak. Aukera zeukan guztietan hurbiltzen zen herrira" gogoratzen du Nekanek. Kanpoko bere lagunak ere ekartzen zituen Donibanera. Horren erakusgarri da Roncalli kardinala, gerora Juan XXIII.a Aita Santua izango zena, Donibanen berarekin egon izana. "Bisita ugari izaten zituen. Mundu osotik etorritako lagunak, eta, berak denak ekartzen zituen hona" gogoratzen du Nekanek. Laboa ezagutu duten guztiek esana da, zailtasunen aurrean erraz kokiltzen ez zen horietako pertsona bat zela, eta Nekane ere bat dator horrekin "Ongia egiteko aukera zeukan lekuan, han zen bera: berdin Roman, Panaman, edo San Juanen". Nekaneri galdegin diogu ea zein litzatekeen berak Laboarengan azpimarratuko lukeen dohaina eta horrela erantzun digu "bere eskuzabaltasun eta entrega gaitasuna egiten zuen guztian. Atsegina izateko dohain berezia zuen gizon bat zen".

Seguruenik, hauengatik guztiengatik, eta Euskal Herria irrikaz maite zuelako, Laboa monsinoreak Euskaldun Unibertsalaren saria jaso zuen Eduardo Chillidarekin batera sari honen lehendabiziko edizioan. Bere heroitzarekin, Vatikanoak, Euskal Herriak zein herriko seme kuttuna izendatu duen Pasaiak, agur esan diote gizon maitagarri bati.



**Nekane Laboa, Monsinore Laboaren lehengusua, bizi den Donibaneko etxean.**

# >> Zer uste duzu aldatu dela aurreko denboraldietako Reala eta aurtengoaren artean?
# >> Zein postuan uste duzu amaituko duela denboraldia?




**1 Bakartxo Gaztelumendi.**
**34 urte. Estetizista.**
Ez dakit eta ez zait inporta.

**2 Juan Bautista Eyo.**
**24 urte. Langabetua.**
Lehen oso gaziki jokatzen zuten. Jokalariak presio handiagoa dute. Entrenatzaileak ere zeresana duela uste dut.
Espero dut laugarren postuan amaitzea.

**3 Manolo Garcia.**
**60 urte. Komertziala.**
Oinarrizkoak diren hiru jokalari dituztela: Kovacevic, Nihat eta Karpin.
Hamargarrenean.

**4 Kepa Garziandia.**
**22 urte. Ikaslea.**
Ideiarik ez.
Lehendabiziko postuan.

**5 Alejandro Ortiz.**
**16 urte. Ikaslea.**
Entrenatzailea. Lehen, atzealdean jokatzen zuten, baina orain aurrealdean jokatzen dute.
Seigarrena. Irabazteko zaila du.

**6 Miren Murua.**
**25 urte. Injineru teknikoa.**
Pertsona desegokiena naiz Realari buruz hitz egiteko, futbola gorroto dudalako.
Erdialdetik.

**7 Aitor Bilbao.**
**14 urte. Ikaslea.**
Entrenatzailea, nire ustez.
Lehenengo seien artean.

**8 Balentin Lujanbio.**
**71 urte. Jubilatua.**
Dena aldatu da azkeneko urteetatik aurtengora.
Nire ustez lehendabizikoa geldituko da.

**9 Periko Zapirain.**
**71 urte. Apaiza.**
Nire ustez txapeldun geratuko da Reala. Eta Hibaika Kontxako txapeldun.

**10 Saioa Ruiz.**
**21 urte. Ikaslea.**
Ni ez naiz Realekoa. Athletikekoa naiz eta Realaren partidak ez ditut jarraitzen.
Lehenengo postuetan sailkatuko dela uste dut, baina jaisten bada ere ez zait inporta.

**11 Koro Arrieta.**
**35 urte. Udal langilea.**
Gauzak aldatu egin dira, baina ez dakit zer den aldatu dena.
Agian, hirugarrenean.

**12 Tomas Argarate.**
**64 urte. Txoferra.**
Orain hobeto dago eta gehiago gustatzen zait taldea. Gustukoen dudan jokalaria Karpin da.
Bosgarren postuan amaituko balute primeran.

## Horrelakoak ginen



**Bai, badakigu gabonak ez direla oraindik iritsi, baina Olentzerori gutunak idazten hasi beharko dugu, ezta? Hilabete honetan aurkezten dizuegun irudiak orduan Pasaia Lizeoa zenaren aurreneko ikasleek gabonak nola ospatzen zituzten ezagutzera ematen du, hau da, orduan ere gaur egun bezala haurrak eta irakaslea baserritarrez janzten ziren. Hau da hau baserritar koadrila, Nekane Auzmendi irakaslearekin, jaiotza eta guzti!**

## Iraganari begirada

### ANTXO PASAIAKO HIRIBURUA (ADMINISTRATIBOA)?*

Jakina den bezala San Juan da Pasaiako hiriburu administratiboa. San Juanen dago Udalaren eraikin nagusia eta San Juanen eskaintzen ditu Udalak zerbitzu gehien.
20. hamarkadan, berriz, Antxoko barrutiak hiriburutza Antxora pasatzea aldarrikatu zuen. Antxo omen zen barrutirik garrantzitsuena. Bertan baitzeuden, Korreos, Telegrafoa, Guardia Zibila, Karabineroak, Aduana, bankuak...
Antxoko zinegotziek eskaera hau planteatu zuten Udalean. Bozketa izan zen eta San Pedroko zinegotziak Antxotarren alde agertu ziren heinean bozketa irabazi zuten. Baina Sanjuandarrak ez ziren konforme gelditu eta Foru Aldundiaren aurrean errekurtsoa ezarri zuten. Eta Foru Aldundia, arrazoi historikoak zirela medio sanjuandarren alde agertu zen.
Beste saiakera bat egin omen zuten Antxotarrek, baina San Pedroko zinegotziak, aurrekoan ez bezala, sanjuandarren alde egin zuten horretan.
Honenbestez, gauzak egun dauden bezala gelditu ziren.BORDAUNDI

*Carlos Yarza Zabalaren Pasajes Ancho liburutik hartuta.

Oarsoaldeko
Euskarazko
Hedabideak

Laister zuekin,
XXI. mendeko
txartel berria




Oarsoaldeko euskarazko hedabideak
>>>
zure ondoan